

GRADU AMAIERAKO LANA

HITZAURREA
HIZKUNTZAK IKASTEKO EUSKAL GRAMATIKA ZAHARRETAN
XIX. MENDE ERDIALDETIK XX. MENDE HASIERARA

Eneritz Dueso Domenech

Euskal Ikasketetako Gradua, UPV/EHU

2017-2018 ikasturtea

Tutorea: Ricardo Gómez López

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

LABURPENA

Ondoko lanaren helburua euskal gramatika zaharren hitzaurreak aztertzea da: XIX. mende erdialdetik XX. mendeko lehen herenera arte, hizkuntzak ikasteko tresna izateko argitaratu ziren gramatiketako sarrerren ezaugarriak zeintzuk diren zehazteko saiakera bat. Gramatiken mamiarekin alderatuz, garrantzi apalagoko alderdia dirudien arren, molde honetako ikerketek gramatiken hitzaurreak asmo, joera, idazkera, argumentu edota autore motaren arabera sailkatu ahal izateko bideak zabal litzakete. Horrekin batera, gramatikak, beren osotasunean, xeheago ulertzeko beste modu bat da hau.

Euskara ikasteko edo euskaldunek erdarak ikasteko sortu ziren hamahiru gramatikatako hitzaurreek osatzen dute lan hau egiteko erabili dugun corpusa. Corpuseko gramatika zaharrena Francisco Jauregiren *Gramera berria, ikasteko eskualdunec mintzatzen espainoles, o sea Nueva Gramática para enseñar á los vascos á hablar español* (1860) lana da. Berriena, aldiz, Nicolás Cortés Manterolaren *Método autodidáctico para aprender vascuence* (1935).

Hitzaurreok aztertzeke metodologia Alfonso Zamorano Aguilar ikertzailearen “El prólogo en la historia de la gramática española de la segunda mitad del siglo XIX” (2004) lanean oinarrituta dago. Honela, lan honetan hitzaurreen izenburuak eta hitzaurreon autoreen tipologia ikertuko ditugu, baita, edukiari dagokionez, testuetan azaltzen diren argumentu formal eta kontzeptualak ere.

Honakoak dira azterketaren emaitza nagusiak: lanak aztergai duen denbora tartean, ez da ageri joera zehatzik hitzaurreen izenburuarekiko edo lanen hitzaurre kopuruarekiko. Hala ere, bi hitzaurre dituzten lanak gailentzen dira. Hitzaurreon funtzioak askotarikoak dira: obra aurkeztea, diru-laguntza eskaerak egitea, kritikari deia, gramatikaren metodologia azaltzea, hizkuntza ikasteko aholkuak ematea... Tipologiari dagokionez, ordea, bat datoz, alderdi askotan, corpuseko lanen hitzaurreak. Autoreari dagokionez, autore intratestual subjektiboa da ohikoena. Hau da, gramatika hauetako gehienetan, hitzaurrea gramatikaren autoreak berak idatzia da eta, askotan, lehen pertsona singularrean aritu eta adierazpen subjektiboak egiten ditu. Argumentu formal eta kontzeptualei dagokienez, formalek (tipografiari buruzko azalpenak, obraren egitura, aurreko obrekiko aldaketak...) ez dute ia garrantzirik lagineko testuetan, kontzeptualekin konparatuz gero. Lagineko hitzaurre askok argumentu formalik ere ez dute; baina, argumentu formalik agertzekotan, lanaren egitura aipatzen dute, gehienbat.

Argumentu kontzeptualak anitzagoak dira eta hitzaurre guztietan azaltzen dira. Hartzailea eta eskaintza lirateke argumentu kontzeptual erabilienak, baina, era berean, generikoak. Esan nahi baita, edozein obra motatako hitzaurre batean agertzea espero dezakegun argumentuak direla bi horiek. Antzera gertatzen da metodologiarekin eta apaltasun faltsuarekin. Apaltasun faltsuaren kasuan, autoreak itxurazko apaltasun bat erabili ohi du, helburu zehatz bat gogoan duela (diru-laguntzak lortzea, kritika erakartzea, irakurlearen arreta bereganatzea eta beste). Generikoagoak diren horiez gain, badira maiz agertzen diren argumentu kontzeptual batzuk. Argumentu politiko, didaktiko eta sozio-kulturalak dira horiek. Mota horretako hiru nabarmentzen dira gehien: euskararen apologia (euskara ikasteko gramatiketan), garbizaletasuna eta hizkuntza ikasteko zailtasunik eza. Euskararen apologiari tarte handia eskaintzen zaio gramatika hauetako hitzaurreetan. Autoreek euskara ikasteari eta, ondorioz, gramatikari garrantzia emateko darabilten modua da hori. Azkenik, autoreek gramatika ez-zientifiko eta praktikoen aldeko adierazpenak egiten dituzte. Ez dute adituentzat idazten, hizkuntza ikasi nahi dutenentzat (autodidaktak, askotan) baizik.

Lan honekin, XIX. mende erdialdetik XX. mende hasierara, hizkuntzak irakasteko helburua duten euskal gramatika zaharretako hitzaurreek egitura eta helburu berberak ez dituzten arren, elkarren arteko kohesioa egon badagoela erakusteko saiakera egin nahi dugu. Denbora tarte horretan, hitzaurreen idazleek *hitzaurre* kontzeptua modu hertsian ulertu ez, baina kontzeptuari antzerako esanahia ematen ziotela, hain zuzen.

AURKIBIDEA

1. SARRERA	5
1.1. Aurkezpena	5
1.2. Corpusa	7
1.3. Metodologia	8
2. HITZAURREEN AZTERKETA	10
2.1. Obra bakoitzaren hitzaurre kopurua.....	10
2.2. Hitzaurreen izenburuak	11
2.3. Hitzaurreen tipologia	12
2.3.1. <i>Autorea</i>	12
2.3.2. <i>Argumentuak</i>	15
2.3.2.1. Argumentu formalak	17
2.3.2.2. Argumentu kontzeptualak	18
3. ONDORIOAK	23
4. BIBLIOGRAFIA	27

1. SARRERA

1.1. Aurkezpena

Hitzaurre batek obra baten zentzua alda dezake, neurri batean. Hala gertatzen da, esaterako, euskal gramatika zaharren hitzaurreekin. Irakurleak gramatika bat hartu eta bere kasa interpretatu edo erabil dezakeen arren, idazlearen asmo, gomendio, kezkei buruz jakin nahi badu, ziurrenik, hitzaurrera jo beharko du horiei buruz jakiteko. Ordea, garai guztietan zentzu bera izan al du autoreentzat *hitzaurre* kontzeptuak? Beti xede beretarako erabili da obrako testuaren aurretik azaldu ohi den idazkia? Bat datoz hitzaurre guztietako gai eta baliabideak?

Gómez-en (2008) hitzetan, bi izan daitezke hizkuntza baten gramatika egiteko arrazoiak: hizkuntza arrotz bat ikasi behar izatea eta hizkuntz politika. Lehenengo beharra asetzeko sortu diren euskal gramatika zaharren hitzaurreak aztertzeko asmoa du lan honek, hizkuntzak irakastea helburu dutela izenburutik bertatik esplizituki azaltzen duten obren aitzinsolasak nolakoak diren azaltzea. Horiek hautatzeko arrazoi nagusia honakoa da: praktikoak dira hizkuntzak irakasteko sortu diren gramatika gehienak, irakurle edo hiztun arruntari zuzenduak eta, ustez behintzat, testu zientifikoagoetako hitzaurreetan espero dezakegun distantzia eta objektibotasun hertsitik urrunago daudenak, malguagoak. Ustezko malgutasun hori edota *hitzaurre* kontzeptua ulertzeko aniztasuna testuotan ba ote dagoen argitzeko ahalegina azalduko dugu ondorengo orrietan.

Horretarako, XIX. mende erdialdetik XX. mendearen lehen herenera, hizkuntzak irakastera bideratu ziren hamahiru euskal gramatika zaharretako hitzaurreak baliatuko ditugu: euskaratik erdarak ikasteko, erdaretatik abiatuta euskara ikasteko edo euskaratik bertatik abiatuta euskara ikasteko egin ziren gramatiken hitzaurreak.

Lanean erabiliko dugun corpus zehatza (§ 1.2) eta metodologia (§ 1.3) azaldu ondoren, hitzaurreotan, Zamoranoren (2004) lana eredu hartuta, aztertuko dugun lehen alderdia hitzaurre kopurua izango da (§ 2.1). *Zenbat hitzaurre izan ohi zituen ezaugarri horiek zituen gramatika batek?* galderari erantzuten ahaleginguko gara. Ondotik, izenburua izango da aztertuko dugun bigarren alderdia (§ 2.2), aztergai den garaian hitzaurreak izendatzeko joerak zeintzuk ziren jakiteko. Hurrengo atalean, hitzaurreon tipologia (§ 2.3) aztertuko dugu, lehenik autoreari erreparatuz (§ 2.3.1) eta, ondoren, lagineko hitzaurreen argumentu formal eta kontzeptualak kokatuz (§ 2.3.2).

Autoreari dagokionez, obra bateko autorea eta hitzaurrearena bat bera diren egiaztatuko dugu: hala izatekotan, hitzaurrearen autorea *intratestuala*¹ dela esango dugu. Kontrako kasuan, autoreari *estrategial* deituko diogu. Era berean, autore hori objektiboa ala subjektiboa² den zehaztuko dugu.

Argumentu formal (esaterako, obren egitura) eta kontzeptualen (adibidez, gramatika praktikoen aldeko aldarria) kasuan, hauen zerrenda proposatuko dugu eta horien erabilerarekiko joera zein den egiaztatu.

Aipatutako atalak jorratu ondoren lortutako emaitzekin, ondorio batzuk proposatuko ditugu (§ 3), XIX. mende erdialdetik XX. mendearen lehen herenera idatzitako gramatika mota honen hitzaurreen ikuspegi orokor bat lortu ahal izateko.

Gramatiken hitzaurreak ikertzeko arrazoiak askotarikoak izan daitezke. Baina, laburbilduz, esan dezakegu abantaila handienetako bat hitzaurre horiek sailkatu eta sakonkiago ezagutzea dela. Ez hitzaurre gisa, bere horretan, soilik: ulertuz hitzaurreak gramatika lanen atari direla eta testuinguru batean kokatzen dutela ondotik irakurriko eta baliatuko dugun lana. Zamoranok (2002: 489) honako hau dio horri buruz: “guarda una íntima conexión tanto con el texto (tipo de obra, objetivos, autor, etc.) en el que se halla como con el receptor y sus circunstancias culturales, políticas, económicas etc. en las que dicho texto se ha gestado”.

Honi erantsi behar diogu, hala ere, hitzaurreak ez direla ezinbesteko paratestuak gramatika batentzat. Izaten da hitzaurrerik gabeko lanik ere. Esate baterako, RAE Espainiako Errege Akademiaren gramatiketan ez zen izan hitzaurrerik 1880 eta 1909 urteen artean, hainbat arrazoi zirela medio: besteak beste, Akademia gizartean erabat integratuta egotea eta berrikuntzarik ia ez txertatu izana gramatikan (Gómez Asensio, 2011: 121).

¹ Terminologia hau Zamorano (2004) lanetik hartuta dago. Ikus (§ 2.3) atala.

² Objektiboa: autorea hitzaurreko edukitik urruntzen da ekintza objektibo baten bidez. Hirugarren pertsonan aritzen da, perpau inpersonalak egiten ditu... Subjektiboa: autoreak ekintza subjektiboz garatzen du hitzaurreko edukia. Lehen pertsonan aritzen da, pasarte batzuetan hirugarren pertsona ere erabili arren, eta hitzaurreko edukia kritikatzeko edo edukiari buruz duen iritzia plazaratzen du. Azalpen xeheagoa autore motei buruzko (§ 2.3.1) atalean.

1.2. Corpusa

Aztertuko dugun corpusa, dagoeneko aipatu bezala, hamahiru gramatikatako hitzaurrez osatuta dago. Corpuseko gramatika zaharrena Francisco Jauregiren *Gramera berria, ikasteko eskualdunec mintzatzen espainoles, o sea Nueva Gramática para enseñar á los vascos á hablar español* (1860) lana da³. Berriena, aldiz, Nicolás Cortés Manterolaren *Método autodidáctico para aprender vascuence* (1935) gramatika. Honakoa litzateke gramatiken zerrenda. Bakoitza zein hizkuntza ikasteko egina den zehaztu dugu (xede-hizkuntza) baita hori irakasteko autorea zein hizkuntzatatik abiatzen den ere (iturri-hizkuntza):

Gramatika	Iturri-hizkuntza	Xede-hizkuntza
Jauregi, Francisco (1860)	euskara	gaztelania
Eguren, Juan Maria (1876)	gaztelania	euskara
Jauregi, Francisco (1883)	euskara	gaztelania
López Mendizabal, Isaac (1908)	gaztelania	euskara
Belaustegigoitia, Federico (1912)	gaztelania	euskara
Soloeta-Dima (1913)	frantsesa	euskara
Euskeltzale-Bazkuna (1918)	gaztelania	euskara
Arruza, Mikel (1925)	gaztelania	euskara
Intxaurren, Miguel (1928)	gaztelania	euskara
Eyheramendy, Pierre l'Abbé (1929)	frantsesa	euskara
Arruza, Mikel (1934)	euskara	euskara
Cortés Manterola, Nicolás (1935)	gaztelania	Euskara
Mispiratçeguy, Fenaille (c. 1936)	frantsesa	euskara

1. taula. Corpuseko gramatikak. Iturri-hizkuntza eta xede-hizkuntza.

³ Lan honetako laginean Jauregiren lan beraren bi edizio ezberdin hartu ditugu kontuan, bata 1860. urtean argitaratutakoa eta bestea 1883. urtekoa. 1850. urtean argitaratu zuen lan horren lehen edizioa baina ez dugu eskuraterik izan. Aipatzekoa da lehen edizio horrek ez zeukala beste biek baduten “Introducción” hitzaurrea, J. M. Larsenek idatzitakoa. Nerea Fernández de Gobeoren bidez dakigu hori, Ricardo Gómez López harekin harremanetan jarri baitzen, Buenos Airesen den 1850eko ale bat kontsultatzeko. Hiru argitalpenen taula bat bidali zigun, lehen edizio hark Larsenen hitzaurrerik ez zuela zehaztuz. Eskerrak eman nahi dizkiogu Nerea Fernández de Gobeori informazio hori helarazteagatik.

Taulak erakusten duenez, lagineko gramatika gehienak euskara gaztelaniatik abiatuta ikasteko gramatikak dira (%54) eta euskara frantsesetik abiatuta ikasteko gramatikak hiru (%23). Bestetik, bi dira gaztelania euskaratik abiatuta ikasteko gramatikak (%15) eta bakarra euskara euskara hutsean ikasteko gramatika (%8). Honek ez du esan nahi, esate baterako, gaztelaniatik abiatuta euskara irakastea helburu duen gramatika bateko hitzaurreak nahitaez bi hizkuntza horietako batean idatzia izan behar duenik. Badira bi hizkuntzatan idatzitako hitzaurreak dituztenak, Jauregiren 1860ko gramatika, kasu, non lehen hitzaurrea gaztelaniaz idatzia den eta bigarrena euskaraz, nahiz gramatikaren helburua gaztelaniatik abiatuta euskara irakastea izan. Aurrerago, (§ 2.2) atalean ikusiko ditugu horrelako kasu gehiago.

1.3. Metodologia

Aurreko atalean aipatutako hitzaurreak aztertzeko metodologia Alfonso Zamorano Aguilar ikertzailearen “El prólogo en la historia de la gramática española de la segunda mitad del siglo XIX” (2004) lanean oinarrituta dago. Ez da, hala ere, metodologia zehatz-mehatz mantendu. Gure metodologia nolakoa izango den eta Zamoranorekiko zein aldaketa egin ditugun azalduko dugu jarraian.

Hala, lehenik, obra bakoitzak zenbat hitzaurre dituen zenbatuko dugu (esker eta eskaintzak ere hitzaurretzat hartuz) eta hitzaurre bakoitzaren izenburua nolakoa den ikusiko dugu.

Ondoren, autoreari erreparatuko diogu, lehenago aipatu bezala, autore intratestuala ala estratestuala dagoen eta berau subjektiboa ala objektiboa den zehazteko. Kontuan hartu behar dugu autore intratestuala gramatikako edukia idatzi duen idazle bera dela eta estratestuala, aldiz, gramatikaren edukia garatu ez duen beste autore bat. Era berean, objektibotzat hartuko dugu testuaren edukitik urrundu eta hirugarren pertsona erabiltzen duen autore. Subjektiboa izango da, ostera, edukiaren gaineko ekintza subjektiboak egiten dituen, iritzia ematen duena eta, oro har, lehen pertsonan aritzen dena. Autore moten berri (§ 2.3.1) atalean emango dugu, zabal eta zehatzago.

Azkenik, hitzaurreen edukia aztertuko dugu, argumentu formal eta kontzeptualak zerrendatuz, eta ohikoenak zeintzuk diren ezarriz. Horiei dagokienez, Zamoranok (2002 eta 2004) proposatutako sailkapenean aldaketak egin ditugu eta ez ditugu ezaugarri egonkor eta aldakorrek bereizi, berak bereizi egin zituen arren. XIX. mendeko espainiar

gramatiken hitzaurreetan bi argumentu zerrenda egin zituen Zamoranok: lehenik, 1847-1999 denbora tarteko gaztelaniazko gramatiken hitzaurreak ikertu eta zerrenda bat egin zuen; gero, 1846-1899 aroa xeheago aztertu eta zerrenda zehatzago bat proposatu zuen urte tarte horretarako. Gure corpora askoz ere txikiagoa da eta, honenbestez, argumentuak aztertzeke eskema sinpleagoa erabiliko dugu. Ondokoa da:

— ARGUMENTU FORMALAK (A_F)

- Obraren egitura (autoreak obraren atalei buruzko azalpenak ematea).
- Aurreko obrekiko aldaketak (autoreak berak idatzitako beste obrak).
- Topikoa: *captatio benevolentiae* (autoreak irakurlearen arreta bereganatzeko erabiltzen duen baliabidea).
- Eskerrak.

— ARGUMENTU KONTZEPTUALAK (A_K)

- Gramatika ez-zientifikoaren eta praktikoen aldeko aldarria.
- Argumentu didaktiko, politiko eta sozio-kulturalak.
 - Euskararen gorapamen edo apologiak.
 - Garbizaletasuna.
 - Hizkuntza ikasteko zailtasuna ukatzea.
- Topikoa: apaltasun faltsua eta kritikari deia.⁴
- Gramatikaren garrantzia zientzia bezala.
- Gramatikaren berritasuna.
- Hartzailea.
- Eskaintza.
- Metodologia.
- Argumentu politikoak.

⁴ Zamoranok (2004) bi zerrenda ezberdin proposatzen ditu argumentu kontzeptual eta formalentzat. Lehenengoa 1847-1999 urteen arteko gaztelaniaren gramatikak deskribatzeko erabiltzen du. Gero, azterketa xeheago egin eta beste zerrenda bat proposatzen du 1846-1899 denbora tarterako. Lehenengoan, apaltasun faltsua argumentu kontzeptuala da. Bigarrean, aldiz, formala. Guk kontzeptualen artean jarri dugu topiko hau. Zamorano (2002: 497) lanean ere topiko hau kontzeptualen artean dago.

2. HITZAURREEN AZTERKETA

2.1. Obra bakoitzaren hitzaurre kopurua

XIX. mende erdialdetik XX. mendearen lehen herenera idatzitako hitzaurre-dun gramatiketan⁵, esan genezake ez dagoela joera zehatzik hitzaurre bakarra edo bat baino gehiago idazteko: gehiago dira bi hitzaurre dituzten lanak, baina aldea ez da bereziki nabarmena. Hamahiru lanetatik bost dira hitzaurre bakarra dutenak (%38) eta zortzi bi dituztenak (%62)⁶. Agian, lagina txikiegia da horrelako erabaki bat hartzeko.

Hitzaurre bakarrekoak honakoak dira: Arruza (1925), Belaustegigoitia (1912), Soloeta-Dima (1913), Mispiratçeguy (c. 1936) eta López Mendizabal (1908). Bi hitzaurre dituztenak: Arruza (1934), Cortés Manterola (1935), Eguren (1876), Euskeltzale-Bazkuna (1918), Eyheramendy (1929), Intxaurrondo (1928) eta corpusean ditugun Jauregiren bi edizioak (1960 eta 1883).

Ez dago bi hitzaurre baino gehiago dituen lanik? Ez zentzu hertsian. Obra askok alfabetoari buruzko azalpenak biltzen dituen atala daukate obraren mamiaren aurretik: Arruzak “Abecedario” izeneko atala idatzi zuen 1925eko lanean. Euskeltzale-Bazkunak (1918) “El alfabeto euzkérico bizkaino” eta “Pronunciacion” atalak dauzka, baina hitzaurretzat hartu ditugun bi testuen eta bi atalon artean bi orri zuri daude. Jauregiren lanek ere (1860 eta 1883) “Abisa” atala daukate. López Mendizabalen lanean (1908) “Alfabeto”, “Acento Tónico” eta “El artículo” atalak ikus ditzakegu. Era berean, Mispiratçeguyren lanean (c. 1936) eta Soloeta-Dimarenean (1913) hitzaurrearen eta mamiaren artean antzeko gaiei buruzko atalak agertzen dira, baina hitzaurretik argi bereizita: atal horiek mamiko pasarteen tipografia bera dute (ezberdina hitzaurrearekiko). Aipatu berri ditugun guzti horiek ez ditugu jo hitzaurretzat.

⁵ Lan hau egiteko erabili den corpusean, gramatika guztiek dute hitzaurre bat, gutxienez. Aldiz, esate baterako, Agustín Pascual Iturriagaren *Arte de aprender a hablar la lengua castellana: para el uso de las escuelas de primeras letras de Guipúzcoa / por D.A.P.I.P.* (1841) lanak ez du hitzaurrerik eta garai berekoa da.

⁶ Kontuan hartzekoa da Jauregiren bi lanak (1860 eta 1883) obra beraren edizio ezberdinak direla eta hitzaurre berberak dituztela. Hala ere, iruditu zaigu obra bakartzat hartu behar dela horietako bakoitza, pentsatzekoa baita autoreak aukera izan zuela atal horiek aldatzeko eta hala egin zezakeela garaian garaiko joerek horretara bultzatu balute.

Hortaz, esan genezake honako ezaugarri hauek dituzten atalak ez ditugula hitzaurreztat hartu:

- Ez dute sarrera lanik egiten, ezinbestekoak dira hizkuntza ikasteko eta zehatz edo metodikoak dira. Askotan, azalpen zehatz batzuk eta adibide praktikoak baizik ez dituzte.
- Gramatikako mamian erabili den formatu eta tipografia bera dute, hitzaurreetakoekiko ezberdina.
- Ez dago banaketa fisikorik (orrialde hutsak, esate baterako) atal horien eta mamiaren artean; bai, ordea, hitzaurrearen eta atal horien artean.

2.2. Hitzaurreen izenburuak

Aurreko atalean aipatu dugu bost direla hitzaurre bakarra duten lanak eta zortzi bi dituztenak. Guztira, hogeita bat hitzaurre.

Ondoko taulan, esanahi antzekoa duten izenburuak elkarrekin sailkatu ditugu:

Terminoak	Erabileraaldiak	Ehunekoa	Gramatika
Itzaurrea Prólogo ⁷ Préface Autorraren prefaziua Preámbulo	8	%38	Arruza (1934), Belaustegigoitia (1912), Cortés Manterola (1935), Eyheramendy (1929), Jauregi (1960 eta 1883), López Mendizabal (1908), Soloeta-Dima (1913)
Introducción Introduction	5	%23,8	Eyheramendy (1929), Intxaurren (1928), Jauregi (1960 eta 1883), Mispiratçeguy (c. 1936)

⁷ Belaustegigoitia (1912) laneko hitzaurrearen izenburua hau da: “Método breve para aprender euzkera por medio de una traducción”. Ordea, aurkibidean, “Método breve para aprender euzkera por medio de una traducción: prólogo” dio. Hori dela eta, “Prólogo” dioten izenburuen artean sailkatu dugu, idazleak *hitzaurre* kontzeptuari izen hori eman nahi izan diolakoan, eta hitzaurrearen izenburua obraren beraren izenburuaren aldaera bat delakoan, nahiz atalaren izenburuan *prólogo* hitza bera erabili ez.

Neure alabarik zaarrenari Sabin'i Al joven patriota Muxika ta Ufestarazuko Mateo	4	%19	Arruza (1934), Euskeltzale-Bazkuna (1918) ⁸ , Intxaurreondo (1928)
Dos palabras	1	%4,8	Arruza (1925)
Advertencias	1	%4,8	Eguren (1876)
Prodedimiento a seguir en el uso de este método	1	%4,8	Cortés Manterola (1935)
[Izenbururik ez]	1	%4,8	Eguren (1876)

2. taula. Hitzaurreen izenburuak.

Izenburu aniztasuna agerikoa bada ere, “Hitzaurrea” termino simple eta argiaren parekoak dira ohikoen testuotan. Argitasun eta zehaztasun hori, ordea, lausotu egiten da hitzaurretzat zehazki zer jotzen den zedarritzerako orduan. Bestetik, izenbururik gabeko hitzaurrerik duen obrarik ere bada hautatutako laginean: Eguren (1876) lanak bi hitzaurre ditu, baina horietatik lehenak ez du izenbururik.

Aipagarria da, era berean, hizkuntzen erabilera: badira bi hitzaurre dituzten obrak, hitzaurre bakoitzean hizkuntza ezberdin batean aritzen direnak. Jauregiren bi edizioetan (1860 eta 1883) lehen hitzaurrea “Introduccion” da, gaztelaniaz idatzia, eta, bigarrena “Autorraren prefaziua”, euskaraz idatzia. Antzekoa gertatzen da Euskeltzale-Bazkuna (1918) eta Intxaurreondo (1928) lanetan. Ez da harritzekoa, hizkuntzak irakasteko gramatiken hitzaurreak izanik.

2.3. Hitzaurreen tipologia

2.3.1. Autorea

Hitzaurreetako autoreak bitan banatuko ditugu lehenik, Zamoranoren (2004) lanean bezala. Autorea intratestuala dela esango dugu gramatikaren mamiaren autorea eta hitzaurrearena bat bera denean. Estratestuala, aldiz, gramatikaren autorea eta hitzaurrearena ezberdinak direnean. Lan batek bi hitzaurre baditu, bi autore motak ere topatu ahal izango ditugu lan berean. Bestetik, autore hori (estrategiala zein intratestuala izan) subjektiboa ala objektiboa den aztertuko dugu.

⁸ Lan horretakoak dira “Sabin'i” zein “Al joven patriota” izenburuak.

Zamoranok (2002: 493-494) autorearen inguruan egindako deskribapena azalduko dugu ondotik:

- *Autore intratestual objektiboa*: Autore mota hau (mama idatzi duen autore bera) testuaren edukitik urruntzen saiatzen da, hirugarren pertsona erabiliz, perpau inpersonalen bidez edo lehen pertsona plural maiestatikoaz.
- *Autore intratestual subjektiboa*: Autore honek (gramatikaren egilea bera) subjektibotasuna eranstean dio hitzaurreko edukiari, lehen pertsona singularreko narrazioa erabiliz (deskribapen bidez edo iritzia emanaz).

Autore estratestuala dagoela esaten dugu gramatikako mamiaren idazlea eta hitzaurrearena bat bera ez direnean. Honela deskribatzen du Zamoranok (2002: 494-495):

- *Autore estratestual objektiboa*: Hirugarren pertsonaren bidez testuaren edukitik urruntzen den autore dugu hau (ez da gramatikaren mamiaren autore).
- *Autore estratestual subjektiboa*: Kasu honetan, hitzaurrearen autoreak kritikak egiten ditu eta bere iritzia ematen du, normalean hirugarren pertsona singular edo pluralean hasi eta, testuak aurrera egin ahala, lehen pertsona singularrera edo pluralera pasata (mamiaren autore eta hitzaurrearen autore hau ez dira bat bera).

Dena den, kontuan hartu beharra dago aipatu dugun subjektibotasun nahiz objektibotasunak ez direla erabatekoak eta zurrinak. Batzuetan, batetik bestera egiten du salto autoreak testuan, nahiz, oro har, autore mota jakin bat gailentzen den hitzaurreetako bakoitzean: “los subtipos que hemos señalado no son apartados absolutos, sino híbridos, en los que se interconexionan el factor objetivo y el subjetivo” (Zamorano 2002: 493).

Lagineko gramatiketan autore intratestual subjektiboa da ohikoena. Obra guztietan azaltzen da, López Mendizabal (1908), Cortés Manterola (1935) eta Mispiratçeguy (c. 1936) lanetan izan ezik. Zehatzago, hamahiru gramatika hauetan azaltzen diren hogeita bat hitzaurreetatik, hamabik autore intratestual subjektiboa dute (%57), bostek estratestual subjektiboa (%24) eta soilik lauk intratestual objektiboa (%19). Autore estratestual objektiboa duen hitzaurrerik ez da batere, eta ez da harritzekoa, autore

estrategistak obra goraiatu ohi baitute, autore intratestualak izaten ez duen askatasunaren jabe. Geroago aipatuko dugun apaltasun faltsuarekiko kontraesana litzateke autore batek bere obra goraiatzea.

Ezohikoena den autore motatik hasita, autore intratestual objektiboa duten obrak Cortés Manterola (1935), Mispiratçeguy (c. 1936) eta Eguren (1876) dira. Lehenak, dituen bi hitzaurreetan erabiltzen du autore mota hau. Hirugarren pertsonan idatziak dira testu biak eta, iritiztat jo litezkeen pasarteak badaude ere, autoreak egiazat ematen ditu aditzera: “Este Método autodidáctico se ha escrito teniendo en cuenta estas dificultades del vascuence, conocidas por el autor por experiencia propia al aprender primero esta lengua y al enseñarla después” (Cortés Manterola, 1935: 6).

Mispiratçeguyren kasuan ere, zalantza sor daiteke objektibotasuna erabiltzen duen ala ez erabakitzeke, une batetik aurrera 1. pertsona plurala erabiltzen baitu: “Nous avons tenté de présenter une grammaire simple, plus mnémotechnique que scientifique” (Mispiratçeguy, c. 1936: 3). Hala ere, testuko mezurik garrantzitsuenak esaldi inbertsonalekin idazten ditu: “On peut s’étonner aussi de voir que le verbe est un substantif suivi d’un auxiliaire” (3. or.) eta gomendioren bat kenduta, testua objektiboa dela esan dezakegu.

Egurenen kasuan, dituen bi hitzaurreetatik bigarrena da intratestual objektiboa (lehen intratestual subjektiboa da). Kasu honetan ez dago zalantzarik, testua erabat inbertsonala baita, eta, azken finean, pare bat ohartarazpen baizik ez dira.

Gatozen orain autore estrategistak dituen hitzaurreetara. Espero izatekoa den arren guztiak subjektiboak izatea, Eyheramendyren lanean Pierre Lhandek idatzitako hitzaurrean lehen pertsona plural maiestatikoa ikus dezakegu. Esaldi honek badu subjektibotasunetik zer edo zer, baina lehen pertsona plural horrek neutraldu egiten du iritiztat jo genezakeen mezua: “Nous applaudissons donc de tout cœur à l’entreprise de M. l’abbé Eyheramendy” (Eyheramendy 1929: 6).

Jauregiren bi argitalpenek (1860 eta 1883), Eyheramendyk (1929) eta Arruzak (1934) autore estrategistal subjektiboa dute beren hitzaurreetako batean eta intratestual subjektibo arruntagoa bestean. López Mendizabalek (1908) ere autore mota hau dauka bere hitzaurre bakarrean. Azken honetako hitzaurrea Arturo Campiónek idatzia da eta honela dio aitzinsolaseko pasarteetako batean, López Mendizabalek egindako lanaren

antzeko zerbait noiz edo noiz burutik pasa zitzaiola adierazteko: “De mí sé decir que más de una vez concebí el proyecto de adaptar á la enseñanza del baskuenze, los métodos que se usan para enseñar el francés ó el inglés” (López Mendizabal 1908: 3).

Jauregiren bi edizioetan J. Mariano Larsenek idatzia da lehen hitzaurrea eta, lehen pertsonan idazteaz gain, ohar subjektiboak egiten ditu. Esaterako, Jauregiren (1960: 14) argitalpenean azaltzen den hau: “¡Qué lástima que no den ni uno ni otro la mas minima prueba!”.

Arruzaren (1934: 3) kasua ere argia da. Azkuek idatzia da hitzaurrea eta 1. eta 2. pertsonak txandakatzen ditu, baita honelakoak idatzi ere: “Ekin, Añuza, zure lan edefí ofi; ekin alemana baizen gaitza ta zañā dogun gure izkera zar eder onen ikastea efaztu, liraindu ta atsegindu arte”.

Esan bezala, gainerako hitzaurre guztiak intratestual subjektiboak dira. Esaterako: “Atenzione handienarekin deliberatu dut obra hunen formatzia, hainitz beharra delakotz egun eskualdunen artian” (Jauregi, 1860: 3). Belaustegigoitiaren (1912) kasuan ere, agerikoa da subjektibotasuna, bere obra hizkuntza ikasteko oso lagungarria dela esaten baitu. Baina are esplizituagoa da Soloeta-Dima (1913: 5) bere iritzia ematerako orduan: “‘Le Petit Basque’ n’est pas une vulgaire reproduction de la grammaire basque que nous publiâmes en Juillet dernier”. *Vulgaire reproduction* bezalako esamoldeei subjektibotasuna darie. Iritzia agertzen duten esamoldeak erabiltzen ditu, halaber, Intxaurrendok (1928: 5): “Después de cuatro años largos que he dedicado a la ardua tarea de enseñar el euskera”. Urteak luzeak direla, eta euskara irakasteko lana neketsu edo gaitza dela Intxaurrendoren iritzia da, jakina, ez egitate objektiboa. Berdin gertatzen da Euskeltzale-Bazkunako (1918: xi) hitzaurreetan: “Sabino también ¿recuerdas? guardaba sus buenas caricias para nosotros” esaldiko laztanak metaforikoak dira, nahiz eta testuak, oro har, pasiozko tonua izan. Bigarren pertsona erabiltzen da testu horretan, gertutasuna adierazteko.

2.3.2. *Argumentuak*

Asko dira lan hau egiteko aukeratutako corpusa osatzen duten gramatiken hitzaurreen funtzioak: obra zeri buruzkoa den azaltzea, diru-laguntzak eskatzea, zuzenketak eta kritika sustatzea, autoreari animoak ematea, hartzailea zein den esatea, obraren helburua zehaztea, obraren egiturari buruz mintzatzea, gramatika erabiliz

hizkuntza ikasteko pausoak zedarritzea, aholkuak ematea, oharra egitea, norbaiti omenaldi egin edo obra norbaiti eskaintzea, hizkuntza goraiatzea, obra egiteko arrazoiak ematea, irakatsi nahi den hizkuntzaren historia kontatzea edo deskribapen linguistikoa egitea, hizkuntza ikasteko erraztasun edo zailtasunari buruz aritzea, lehenago egin diren lanak zeintzuk diren esatea, lana egiteko oztopoak zerrendatzea...

Ordea, zeintzuk dira, zehatzago, obra bakoitzaren hitzaurreetan erabili diren argumentuak? Nola sailkatu guzti horiek modu ulergarriago batean?

Dagoeneko birritan aipatu dugunez, Zamoranok (2004) egindako XIX. mendearren bigarren erdialdeko gaztelaniazko gramatiken hitzaurreen azterketa du oinarri lan honetako metodologiak. Horrek ez du esan nahi hark proposatutako hitzaurreen azterketa bere horretan erabili dugunik. Hainbat aldaketa egin dizkiogu metodologiari, batez ere argumentuak aztertzeke moduari dagokionez.

Hasteko, Zamoranok bi argumentu zerrenda ezberdin proposatu zituen, (§ 1.3) atalean azaldu dugun bezala. Zerrenda horietako bakoitzean, argumentu formalak eta kontzeptualak bereizi zituen, baita horien baitan argumentu egonkor eta aldakorrak ere.

Esaterako, 1847-1999 urteen arteko ikerketa egin zuenean, obren egiturari dagokion argumentua beti azaltzen zela zehaztu zuen (argumentu formal egonkorra) eta eskerrak, berriz, batzuetan soilik azaltzen direla zioen (argumentu formal aldakorra). Era berean, obraren berritasuna argumentu kontzeptual egonkortzat jo zuen eta argumentu politikoa kontzeptual aldakortzat. Batzuetan, lehen zerrendan argumentu formaltzat jotakoa bigarren zerrendan argumentu kontzeptualen artean sailkatzen du. Adibidez, lehen zerrendan apaltasun faltsua argumentu kontzeptuala da eta bigarreanean, ostera, formala. Guk kontzeptualtzat joko dugu. Zamorano (2002) lanean ere hala sailkatuta dago.

Guk aztertuko dugun lagina txikiagoa da kopuru aldetik, eta hautatutako gramatika guztien helburua bat bera (nahiz ñabardura ezberdinak izan): hizkuntza bat irakatsi edo ikasteko tresna izatea. Hori dela eta, Zamoranoren (2004) metodologia sinplifikatu eta aldatu dugu, gurera hobeto egokituko den baten bila.

Guk ez dugu aztertzen ari garen denbora tartean garai ezberdinik bereiziko, ondoko orrialdeetan ikusiko dugunez, gramatika hauetako hitzaurreen idazleen joerak antzekoak direlako, oro har, XIX. mende erdialdetik XX. mende hasierara. Hortaz, argumentu

bakoitza formala edo kontzeptuala izango da (ez dugu batean edo bestean finkatutako argumenturik kategoriaz aldatuko).

Era berean, egonkor eta aldakorrik ez dugu bereiziko, iruditzen baitzaigu egonkortzat jo genitzakeenak gutxi eta oso zabalduak direla. Aldakortzat jo genitzakeenak, aldiz, ausazkoagoak dira; ez dirudi eredu zehatz bati erantzuten diotenik (gramatika baten hitzaurrean azal daitekeenaren mugei soilik). Egonkor eta aldakorren ordeztu, erabiliak ezarriko ditugu, joera baten eredu bezala, eta gainerako aukerak zeintzuk diren esango dugu (Zamoranok *Otros* deitzen dituenak bezala). Hau da, ohikoenei emango diegu garrantzia, hain erabiliak ez diren beste argumentu batzuk ere azaldu ohi direla ahaztu gabe.

Azkenik, Zamoranok proposatutako argumentu asko ez ditugu aipatuko, aitzinsolasotan azaltzen ez direlakoan eta, orobat, berri batzuk gehituko ditugu, gure laginetako gramatiketan ohiko eta garrantzitsu direlakoan. Esaterako, aurrerago ikusiko dugun argumentu kontzeptualetako bat, hizkuntza gorestea edo apologia, ez da azaltzen Zamoranoren (2004) argumentuen artean.

Taula batean bildu ditugu, (§ 1.3) atalean, ondoren banan-banan eta sakonago azalduko ditugun argumentu formal eta kontzeptualak.

2.3.2.1. Argumentu formalak

Dagozkigun gramatiken hitzaurreetan argumentu formalak ohiko badira ere, kontzeptualekin konparatuz, gutxiago dira eta ez dira hain maiztasun handiarekin azaltzen.

Obraren egitura da autoreek gehien erabiltzen duten argumentu formala. Egurenak (1876: 1) honela dio: “Consta de dos partes: la 1.^a es un pequeño diccionario castellano-vasco que abraza las voces más usadas en la conversación familiar: la 2.^a contiene las declinaciones y conjugaciones vascongadas”. Intxaurrendok (1928: xxiii-xxiv) ere badarabil argumentu hau: “En el presente *Método*, la Conjugación vá en doce de las primeras Lecciones, a fin de que el alumno se dé inmediatamente cuenta de todo el verbo vasco”. Cortés Manterolaren (1935: 6) lanean ere lanaren atalei buruzko azalpenak daude: “Consta de cinco partes”. Eyheramendyk (1929: 8) ere zera dio, frantsesez: “Nous donnons un simple aperçu... sur les principaux suffixes, sur le nom, l’adjectif, l’adverbe. Quant au verbe, [...] un chapitre spécial lui est consacré”.

Gramatikaren autoreak berak idatzitako **aurreko obrei buruzko** argumentu formala, bi obratan ikus dezakegu argien. Soloeta-Dimak (1913: 5) ondoren datorrena esaten du bere obran: “Il se rapproche cependant de notre «Curso primero del idioma basko» écrit en dialecte gipuzkuan, mais nous en avons augmenté considérablement le vocabulaire, perfectionné les conversations, tout en y ajoutant un petit dictionnaire”. Era berean, Arruzak (1925: 5) *Euskadi* aldizkarian argitaratu zuen metodoa aipatzen du, garai hartan ezagun zen Masse-Dixon metodoan oinarritutakoa: “Con anterioridad a la aparición de la presente obra publicamos en el diario de esta localidad EUSKADI, un método práctico para aprender vascuence, traducido del inglés”.

Ondoko argumentu formalak ere topatu ditugu hitzaurreetan: *captatio benevolentiae* topikoa eta eskerrak.

Captatio benevolentiae edo, bestela esanda, irakurlearen arreta bereganatzea Jauregiren bi argitalpenetan ageri da, behin baino gehiagotan. Esaterako, J.M. Larsenek zera dio: “Y ante todas cosas, tengo que mencionar una noticia muy capaz de llamar la atención; qué digo? una noticia capaz de hacer al lector brincar sobre la silla!” (Jauregi 1860: iii).

Azkenik, **eskerrak** Arruza (1925: 5) lanean ikus ditzakegu: “Con la ayuda económica que nos han prestado algunas personas caritativas y amantes de nuestro verbo, a quienes Dios premiará debidamente en su día por la buena obra que han realizado”. Baita Soloeta-Dimaren (1913: 7) lanean ere:

Je dois, avant de finir cette préface, rendre hommage et adresser mes sincères remerciements à M. J. P. Passicot, président du «Centre Basque-Français» de Buenos Aires, et à M. J. B. Vincenty, directeur de «La Euskaria». Ce deux excellents compatriotes m'ont donné la possibilité de faire imprimer mon «Petit Basque».

2.3.2.1. Argumentu kontzeptualak

Argumentu kontzeptualak askotarikoak dira, baina argumentu kontzeptual horietako batzuk obra askotan errepikatzen dira. Espero izatekoa denez, arruntenetarikoak **hartzailea** eta **eskaintza** dira, ez bakarrik gramatiketako, baizik edozein obratako hitzaurreetan zentzua izango luketen argumentu kontzeptualak direla eta.

Hartzailea nor den ez da beti modu berean adierazten, hala ere. Esaterako, Jauregiren bi edizioetako (1860 eta 1883) hartzaileak euskaldunak direla ulertzen dugu,

gaztelania ikasteko gramatika hauen beharra dutela dioelako. Belaustegioitiak (1912: 1), ostera, argi eta garbi adierazten du hartzailea nor den: “Es un método para los que no puedan ó no quieran asistir á una clase”. Cortés Manterolaren hartzailea ere Belaustegigoitiaren obrakoaren berdina da. Euskeltzale-Bazkunaren (1918) kasuan, hitzaurreen izenburutik bertatik igar dezakegu, hartzaile bati buruz edo eskaintza bati buruz ari zaigula. Hitzaurreak irakurritakoan ohartzen gara, “Sabin’i” dioenean eskaintza bat egiten ari dela, eta “Al joven patriota” dioenean, hartzaileari buruz ari zaigula. Eyheramendyk (1929: 8) zerrenda batean biltzen ditu bere obraren hartzaileak: “Industriels, médecins, notaires, avocats, commerçants en relations avec nos paysans”.

Eskaintza bat biltzen duen obra bakarra ez da, noski, jada aipatutako Euskeltzale-Bazkuna. Soloeta-Dimaren obran ere bada eskaintzarik (hitzaurrearen baitan, atal luzea eskaintzen dio zeregin honi), baita Intxaurren (1928) lanean ere, lehenengo hitzaurrearen “Muxika ta Ufestarazu’ko Mateo Yaun aundizki ta Agurgarri, Gasteiz’ko Gotzain eta Iruñ’eko izanari” izenburuan bertan ikus dezakegunez. Arruzaren 1934ko gramatikako bi hitzaurreetan ere bada eskaintzarik. Lehen hitzaurrea bere alabari eskainia da:

NEURE ALABARIK ZAAÑENARI

Begoñe, artu egizu aitaren eskutiko

bezua txikar auxe, ta izan zaitez, zure

bizitza guztian, gogoz ta izkuntzaz, gaur

artean zarean lango euskaldun uts-utsa.

Egilea.

Bilbo’n, 1934’gko Mikel Donearen egunean. (Arruza, 1934: 2)

Bigarreanean, Azkuek, autore estratestual bezala, Arruzari berari eskaintzen dio hitzaurreko testua, hitzaurreko azpitituluan bertan igar daitekeen moduan: “BILBOKO EUSKERA-IRAKASLE MIGEL ARRUZA YAUNARI” (3. or.).

Edozein testu zientifiko edo didaktikotan ohikoa den bezala, gramatika hauetako aitzinsolas batzuk **metodologiaz** aritzen dira, dela aurkezten duten gramatika nola erabili azaltzeko, dela hizkuntza bat ikasteko gomendio orokorrako emateko. Arruza (1925: 6) irakasleei zuzentzen zaie, metodologiaren inguruko argibide hau emateko: “no deberán enseñarles las palabras de los vocabularios, ni las flexiones verbales haciéndoles aprender de esta manera: *yo soy = ni naz* [...] sino dándoselas intercaladas en oraciones completas, así: *ni irakaslea naz = yo soy el profesor*”. Nolabait, gramatika

praktikoak inplizituki aldarrikatzeko modua ere bada hori. Intxaurrendok (1928), berriz, gomendioak ikasleari berari ematen dizkio, geldo hitz egiteko eta hitzak ondo ahoskatzeko esanez. Cortés Manterolaren kasuan, esan genezake zeharka aritzen dela metodologiari buruz, euskara urte batean ikasteko ikasle batek egunero ikasten eman beharreko ordu kopuruari buruz aritzean: “Con este método puede una persona de regular capacidad, con dos horas diarias, aprender en un año, o poco más, lo suficiente para entenderse con cualquiera en vascuence” (Cortés Manterola 1935: 7).

Bestetik, argumentu kontzeptual erabilienetako bat **apaltasun faltsua** da, kritikari egindako deiari hertsiki lotua. Eta, faltsua dela diogu, zerbait lortzeko funtzioa duelako. Esan nahi baita irakurlea limurtu nahi dela itxurazko apaltasun baten bidez, dirulaguntza bat lortzeko, kritika erakartzeko edo, besterik ezean, gramatika irakurleari saltzeko. Egurenen (1876: 1) obrako “publicamos este pequeño Manual, esperando sea acogido con benevolencia por el público en gracia del buen deseo que nos mueve á darlo á luz” esaldiak ondo erakusten du zer den argumentu mota hori. Badirudi autorea ia barkamena eskatzen ari dela gramatika argitaratzeagatik, baina bere nahi bakarria irakurleak obra ontzat ematea da. Erabiltzen dituen terminoek ere agerian uzten dute apaltasuna erakusteko behar moduko hori: *pequeño*, *benevolencia* edo *buen deseo* ez dira termino neutroak. Belaustegigoitiaren (1912: 2) apaltasun faltsua ez da hain muturrekoa, baina antzeko helburu inplizitua du: “Mi mayor placer sería que cualquiera de nuestros euskerólogos le utilizaran como suyo, sin miedo al plagio y elaborara con él otro mucho más perfecto”.

Aipatu berri ditugun argumentu kontzeptualak obra mota askotan azaldu daitezke. Ondotik datozenak zehazkiago dira lotuak gramatikekin edo hizkuntzekin zerikusia duten obrekin, kasu gehienetan. Esaterako, gehien azaltzen diren gramatika praktikoen aldeko argumentuak, euskara gorestea edota euskara ikasteko zailtasun erantsirik eza.

Gramatika praktikoen aldeko argumentuak ematen dituztenek hizkuntza bat ikasteko modua, irakurtzea, ikasitakoak errepikatzea eta praktikan jartzea dela diote. Aldi berean, aldarri hau egiten dutenek gramatika ez-zientifikotzat dituzte beraiek idatzitako lanak. Badirudi horrela irakurle arrunta erakarri nahi dutela eta hizkuntzen deskribapen hutsa egiten duten gramatiketatik beren lanak ezberdindu. Nolabait, apaltasuna erakusteko modua ere bada hori, XIX. mendean eta XX.ean zientziak izan duen garrantzia eta estatusa kontuan hartzen badugu. Gramatika praktiko bat erabilgarriagoa da hiztun

arruntarentzat, baina badirudi lan apalagoa dela lan ustez zientifiko bat baino. Arruzak (1925: 6) argumentu kontzeptual hau darabil: “El éxito del método está en gran parte en la repetición de los ejemplos prácticos del texto, no en las reglas gramaticales que en él se dan”. Eyheramendyk (1929: 7) gramatika praktikokoak gomendatzen dizkie ikasleei, zientifikoaren ordez: “Ce n’est pas un traité scientifique de grammaire [...] Notre but est plus modeste. Nous n’envisageons que le côté *pratique* de la langue basque, la façon de l’apprendre à des gens qui ne la connaissent pas”. Berdin jokaten du Cortés Manterolak (1935: 5) ere: “Sabido es que las lenguas se aprenden a fuerza de **practicarlas**”.

Argumentu didaktiko, politiko eta sozio-kulturalak, (§ 1.3) ataleko zerrendan aipatutakoak, oso erabiliak dira lagineko obretako hitzaurreetan. Guztiak multzo berean ez sailkatzeko, azpi-argumentuak bereizi ditugu. **Euskararen goraipamena** edo apologia da horietako bat. Apologia horrek bi helburu ditu. Bata, esplizitua, hizkuntza goraipatzea eta bestea, inplizitua, ikasleen interesa piztu eta gramatika erabiltzera bultzatzea.

Jauregiren lanean, J. M. Larsenek hainbat bide erabiltzen ditu euskara goraipatzeko. Beste hizkuntzekin konparatzen du, euskara besteen mailakoa dela esateko. Historiako pasarteez hitz egiten du, euskaldunen “lorpenak” euskararen alde erabiliz: “Trátase nada menos que del primer descubrimiento de América efectuado antes de Colón por los vascos pescadores de bacalao” (Jauregi 1860: iii-iv). Dena den, badirudi esaldi hori ironiaz erabiltzen duela, Lespalderen ahotan jarriz eta haren esanen sinesgarritasuna zalantzan jarriz. Euskal kantuak ere erabiltzen ditu helburu bererako: Anibalen Zalduna, Lekobideren Kanta, eta Altabizkarren Kanta ditu hizpide, hirurak kantu apokrifikoak, faltsifikazioak. Egurennek (1876: 1) Euskal Herriaren edertasuna eta turismoa aipatzen ditu euskara goratzeko arrazoi gisa, hain zuzen, Egurenen lana Euskal Herrira etortzekoak diren bisitariarentzako egina baita. Soloeta-Dimak (1913: 6) berriz, Louis Lucien Bonapartek euskarari buruz esandakoak ekartzen ditu gogora: “La superiorité de la langue basque sur toutes autres langues est immense, dit le Prince Lucien Bonaparte”.

Argumentu didaktiko, politiko eta sozio-kulturalen baitako bigarrena **euskara ikasteko zailtasuna ukatzea** litzateke. Hiru kasu argi topatu ditugu. Intxaurrendok (1928: v) latinarekin egiten du alderaketa: “No es que el euskera sea lengua difícil. Siendo el latín padre del español, es mucho más difícil para nosotros que el euskera”.

Cortés Manterolaren (1935: 6) hitzetan, euskara ikasteak ez du zailtasun berezirik eta irakasle baten laguntzarik gabe ere ikas daiteke (beste gramatika batzuetan ere azaltzen da ideia bera): “La lengua vasca se presta muy bien a aprenderla sin profesor”. Gainera, euskara ikastea zaila dela diotenen aurka egiten du, bere iritzia indartzeko:

Pero ni con este método, ni con ninguno, es posible aprender vascuence, ni lengua alguna, sin estudiar, como pretenden algunos que después tratan de excusar su pereza diciendo que el vascuence es muy difícil. No hay tal; el vascuence no es más difícil que el francés o el inglés, y es muchísimo menos que el alemán, el latín y el griego. (Cortés Manterola, 1935: 7)

Mispiratçeguyk (c. 1936: 3) euskara hizkuntza “logikoa” dela dio: “En réalité, c’est une langue d’une précision rigoureuse, et la construction de la phrase, une fois son mécanisme compris, paraît absolument logique. L’expérience montre aussi que la phrase basque répond à notre instinct”.

Argumentu didaktiko, politiko eta sozio-kulturaletako azkena **garbizaletasuna** litzateke. Arturo Campión da sutsuena argumentu honekin, López Mendizabalen (1908) laneko hitzaurrean. Hain zuzen, López Mendizabalen gramatika euskara garbitzeko tresna bezala proposatzen du, une batean, besteak beste. Euskara arrunta ustelduta eta hitz atzerritarrez josia dakusa. Horri aurre egiteko modua ere proposatzen du Campiónek:

Desenterrar las palabras arcáicas, trasladar de uno á otro dialecto basko las preciosas reliquias que, esporádicamente, conservan todos y en último término, acudiendo á las raíces de la lengua, y aplicando severamente las reglas fonéticas y los elementos de la derivación y de la composición, inventar los neologismos necesarios. (López Mendizabal, 1908: 4)

Zerrendan aipatu ditugun argumentu kontzeptualekin bukatzeko, **gramatikaren garrantzia zientzien artean, gramatikaren berritasuna eta argumentu politikoak** aipatu behar ditugu. Lehena aipatzen duen bakarra J. M. Larsen da, laginean aztertu ditugun Jauregiren bi edizioetan (bien hitzaurreak berak direla ekarri behar da gogora). Zentzua du beste autoreek ez aipatu izana, gehienek gramatika praktikoen alde egin eta beren gramatikak ez-zientifikotzat jotzen dituztela esan baitugu dagoeneko. Ondokoa dio Larsenek Jauregiren lanean gramatika honek zientziari egindako ekarpenari buruz: “constituye un valioso adimento á los datos que en nuestros días con tanto afán recoge la filología comparada” (Jauregi 1860: iii). Gramatikaren berritasunaz ari dena Arturo Campión da López Mendizabalen (1908: 3) gramatikan eta dio, euskalgintza lanik lehenago egon bazegoen ere, praktikara bideratutakorik ez zela ordura arte idatzi.

Lehenago idatzi ziren obrak ulertzeko linguistikaz zer edo zer jakin beharra zegoela adierazten du. Azkenik, argumentu politikoak testu batean baina gehiagotan azaltzen badira ere, argumentu honen eredutzat har dezakegun esaldietako bat Jauregiren (1860: iii) lanean azaltzen den hau da, Larsenek idatzitakoa: “El idioma vascuence ó Euscaro, amenazado de perecer bajo la accion centralizadora de los gobiernos”.

Gure zerrendan ez ditugu, esaterako, Zamoranok (2004) kontuan hartutako **notazio diatopiko** eta **diakronikoei** buruzko argumentuak aztertu, horrelako kasu gutxi topatu ditugulako. Hala ere, esan beharra dago, azalpen diatopikoak azaltzekotan, batez ere, Soloeta-Dimaren (1913) lanean azaltzen direla, bere gramatika, zehazki, lapurteraren ingurukoa delako, eta euskalkien inguruko beste lan batzuk ere egin zituelako dimatarrak. Besteak beste, aztertu dugun obra baino urte batzuk beranduago, *Ensayo de unificación de dialectos baskos* (1922) argitaratu zuen. Guk aztertu dugun lanean, batere harrigarria ez den honako notazio diatopikoa egiten du: “Cette lettre «h» est indispensable dans le dialecte labourdin; les Lapurtars aussi bien que les Chouberotars l’emploient fréquemment, tandis que les basques des autres contrées ne la connaissent pas” (Soloeta-Dima, 1913: 5-6).

3. ONDORIOAK

Azterketan zehar ikusi dugunaren arabera eta orokortasunak kontuan hartuz gero, XIX. mende erdialdetik XX. mendearen lehen herenera argitaratutako alegiazko gramatika batean zera espero genuke topatzea: bi hitzaurre (edo bat), autore intratestual subjektiboak idatziak biak (edo bietatik bat, gutxienez), eta bi hitzaurreetako batek, “Hitzaurrea” izenburua izango luke. Autore horrek obraren egiturari buruzko argumentu formala emango luke hitzaurre hipotetiko horretan eta, era berean, bere obraren hartzailea nor den zehaztuko luke. Obra norbaiti eskainiko lioke eta, gutxienez, argumentu didaktiko, politiko edo sozio-kultural bat aipatuko luke. Esaterako, euskara goraiatuko luke, bere gramatikaren helburua euskara irakastea izatekotan; edo beste hizkuntza bat helburu izatekotan, adibidez, gramatika praktikoen aldeko argumentuak emango lituzke.

Oraintxe aipatu duguna alegia hutsa den arren, ondoko ondorioak atera ditzakegu lagineko hitzaurreen azterketa egin ondoren:

Bi hitzaurre dituzten obrak gehiago dira aukeratu dugun corpusean. Hala ere, bakarrekoeiko aldea ez da bereziki nabarmena. Bi hitzaurre dituzten gramatikak zortzi dira, eta bakarra dutenak bost. Hortaz, esan genezake hitzaurre bat edo bi zituzten obrak zirela ohiko, eta bi hitzaurre baino gehiagokoak ezohiko.

Hitzaurreei ematen zaizkien izenburuak sinpleak eta espero genitzakeen modukoak dira. Gehienek *hitzaurre* hitza bera edo haren sinonimo bat darabilte. Sarrera edo *Introducción* bezalakoak eta norbaiti zuzentzen zaizkionak X-ri (“Sabin’i”, adibidez) ere arruntak dira. Bitxiaena, agian, batere izenbururik gabe hasten den Egurenen (1876) laneko lehen hitzaurrea da, hautatu dugun laginean izenbururik ez duen hitzaurre bakarra.

Hitzaurreetako autore arruntena intratestual subjektiboa da, gramatikaren autorea bera. Badira bestelako autore motak ere, baina neurri txikiagoan azaltzen dira gramatiketan. Ohikoena 1. pertsonan hitz egiten duen autorea da, berak idatzitako obrari buruz subjektiboki aritzen dena. Autore estratestuala dutenek abantaila bat dute: autoritatea duen pertsona baten sarrera izan dezakete (gure corpusean, Azkuek, Pierre Lhandek, J.M. Larsenek eta Arturo Campiónek idatzitako beste autoreentzako hitzaurreak topatu ditugu). Hala ere, autore intratestuala da, esaterako, apaltasun faltsua bezalako argumentuak bere alde erabiltzen dituenak. Hala ere, autore intratestual objektiboa eta estratestual subjektiboa duen obrarik bada. Eta ez dago autore estratestual objektiborik, nahiz hori espero izatekoa den, autore estratestualaren bertute handiena obrari buruz subjektibotasun osoz (obraren kontrako argumenturik ematen ez duen artean, noski) aritu daitekeela izanik.

Argumentuei dagokienez, formalek ez dute pisu handiegirik hitzaurreetan, baina obraren egiturari buruzko azalpenak dira mota horretako argumentuetatik gehien erabiltzen direnak. Autore beraren aurreko obrei buruzko aipamenak (edizio bat baino gehiago dagoelako, beste obra ezberdin batekin zerikusia duelako, obra lehenago atalka aldizkari batean argitaratua izan delako), *captatio benevolentiae* delakoa (irakurlearen arreta bereganatzeko autoreak darabilen baliabidea) edota eskerrak azaltzen dituen obrarik bada, Zamoranoren (2004) lanean bezala. Aldiz, agerpen gutxi batzuk dituzte soilik argumentu hauek gure lagineko obretan, besteekin alderatuz gero.

Argumentu kontzeptualak, ostera, askotarikoak dira eta hitzaurre guztietan topa ditzakegu. Gainera, esan genezake, gramatika hauek hizkuntzak irakasteko tresna

izateko sortuak direla argumentu horietan igartzen dela gehien. Generikoagoak diren argumentu kontzeptualetatik (edozein obra motatako hitzaurreetan ager daitezkeenak), erabilienak hartzailea eta eskaintza dira. Apaltasun faltsua eta metodologia ere maiz erabiltzen dute autoreek. Azken hau ez da, agian, argumentu erabat generikoa, baina xede pedagogikoa duten obretan arrunta da, ez soilik hizkuntzarekin zerikusia duten horietan. Edo, zehatzago, ez soilik hizkuntzak irakastera bideratutako gramatiketan. Hitzaurre askotan, garrantzia handia du argumentu didaktiko, politiko eta sozio-kulturalak. Hain zuzen, euskara irakasterako gramatiketan, maiz azaltzen dira euskararen aldeko aldarri, goraipamen edo apologiak. Baliabide ezberdinak erabiltzen dituzte autoreek horretarako: euskaldunen historia eta “lorpenen” bidez euskarari balioa ematea, kantuen edertasunaren bidez euskararen edertasunari buruz hitz egitea (kantuek faltsifikazioak izanda ere), beste hizkuntzekiko konparaketa egitea, euskara beste hizkuntzak bezain baliotsua izan daitekeela erakusteko... Euskara ikasteak zailtasun berezirik ez duela dioen argumentua ere behin eta berriz azaltzen da mota horretako gramatiketan, eta ez da harritzekoa, gaur egun ere euskara ez ikasterako aitzakia zabalduenetakoa euskara ikasteak duen ustezko zailtasuna izaten baita. Gramatiken egileek (edo haien obretako hitzaurreen idazleek) arrazoiketa hori kritikatzeko dute, nagikeriarekin lotuz: haientzat, euskara ikastea beste hizkuntzak ikastea baino zailagoa ez den arren, horrek ez du esan nahi, beste edozein hizkuntza ikasterako orduan bezala, ahaleginik edo lanik egin behar ez denik euskara ikasterako.

Aurreko guztia kontuan hartuta, esan genezake bazela homogeneousutasunik XIX. mende amaiera eta XX. mende hasierako gramatiken hitzaurreetan. *Hitzaurre* kontzeptua ulertzeko autoreek zeukaten ikuspuntuan, zer esanik ez. Hala ere, Zamoranorena (2004) bezalako lan sakonago bat egiteko, ziurrenik denbora tarte zabalagoan zehar egindako obrak ikertu beharko genituzke eta mota askotako gramatikak kontuan hartu, ez soilik hizkuntzak irakastera bideratutako gramatikak. Hau da, lagin handiago bateko hitzaurre guztien azterketa egin eta hortik ondorioak atera beharko genituzke. Orduan, agian, garai ezberdinak bereizi ahal izango lirateke euskal gramatiketako hitzaurreen idazketarekiko, joerak arotan sailkatu, baita azterketa xeheago bat egin ere: argumentu finkoak eta aldakorrak zeintzuk izan litezkeen ezarri, argumentu formalek beste garairen batean garrantzia handiagoa izan zuten ala ez ikertu, aztertu dugun garaian oso ohiko diren izenburu, autore mota, argumentuak, beste garai

batean ezohiko ote diren ikusi... Eta, era berean, helburu xumeagoak dituen lan honetan egindako proposamenak berrikusi eta zuzendu.

4. BIBLIOGRAFIA

- Arruza, Mikel, 1925. *Método práctico para aprender vascuence traducido de otros idiomas y adaptado al nuestro. Primer libro*. Bilbo: Gaubeka. <<http://hdl.handle.net/10357/4617>> [Kontsulta: 2018/07/17].
- , 1934. *Euskeraz ikasteko bide éraza (Bigarren ageáldia)*. Bilbo: Verdes-Atxirika'ren irarguan. <<http://hdl.handle.net/10357/996>> [Kontsulta: 2018/07/17].
- Belaustegigoitia, Federico, 1912. *Euzkerazko ikasbide éraza - Método fácil para aprender el euzkera*. Bilbo: Imp. lit. Vda. Hijos de Grijelmo. <<http://hdl.handle.net/10357/589>> [Kontsulta: 2018/07/17].
- Cortés Manterola, Nicolás, 1935. *Método autodidáctico para aprender vascuence*. Bilbo: Imp. de Ordorika. <<http://www.liburuklik.euskadi.net/handle/10771/11697>> [Kontsulta: 2018/07/17].
- Eguren, Juan Maria, 1876. *Manual de la conversación para uso de los que visitan el País Vasco*. Donostia: A. Baroja. <<http://www.liburuklik.euskadi.eus/handle/10771/24408>> [Kontsulta: 2018/07/17].
- Euzkeltzale-Bazkuna, 1918. *Método gradual para aprender el euzkera*, 2 lib. Bilbo: Editorial Vasca / Euzko-Argitaldaria. <<http://hdl.handle.net/10357/2183>> [Kontsulta: 2018/07/17].
- Eyheramendy, [Pierre] l'Abbé, 1929. *Méthode pratique pour apprendre le basque*. Paris: Maisonneuve Frères. <<http://hdl.handle.net/10357/5143>> [Kontsulta: 2018/07/17].
- Gómez Asensio, José J., 2011. *Los principios de las gramáticas académicas (1771-1962)*. Bern, Berlin, Bruxelles, Frankfurt am Main, New York, Oxford, Wien: Peter Lang.
- Gómez López, Ricardo, 2008. “Euskal gramatikagintza zaharraren historia laburra: XVII-XVIII. mendeak”. In X. Artiagoitia & J. A. Lakarra (arg.). *Gramatika Jaietan. Patxi Goenagaren omenez*. Bilbo: UPV/EHU & Gipuzkoako Foru Aldundia. ASJUren gehigarriak, 51, 329-349. <<http://www.ehu.eus/ojs/index.php/ASJU/article/view/9795>> [Kontsulta: 2018/07/17].

- Intxaurren, Miguel, 1928. *Método práctico del euskera*. Iruñea: José Aramendía. <<http://hdl.handle.net/10357/4688>> [Kontsulta: 2018/07/17].
- Jauregi, Francisco, 1860. *Gramera berria, ikasteko Eskualdunec mintzatzen Espainoles, o sea Nueva Gramática para enseñar á los Vascos á hablar Español*. Buenos Aires: Lib. de Pablo Morta. <<http://books.google.es/books?id=HvAIAAAAQAAJ>> [Kontsulta: 2018/07/17].
- , 1883. *Gramera berria, ikasteko eskualdunec mintzatzen espainoles; ó sea Nueva gramática para enseñar á los bascos á hablar español*. Buenos Aires: Igon Hermanos. <<https://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k97643844>> [Kontsulta: 2018/07/17].
- López Mendizabal, Isaac, 1908. *Manual de conversación castellano-euskera, con extensos vocabularios de nombres, verbos y modismos, diálogos, cartas, refranes, anuncios y un compendio de gramática = Erderaz eta euskeraz itz egiteko esku-liburua, izen, aditz eta esakeren iztegiak, elkarrizketak, eskutitzak, esaera zarrak, iragarriak izkindecho batekin*. Tolosa: Eusebio Lopez'en echean. <<http://hdl.handle.net/10357/4301>> [Kontsulta: 2018/07/17].
- Mispiratçeguy, Fenaille, c. 1936. *Initiation a la langue basque*. Paris: Editions Initiatives. <<http://hdl.handle.net/10357/1966>> [Kontsulta: 2018/07/17].
- Soloeta-Dima, 1913. *Le petit basque. Cours élémentaire de grammaire basque. Dialecte labourdin. Par le R.P. Soloeta Dima professeur de langue basque au collège "Euskal-Echea" (Republique Argentine)*. Buenos Aires: Imp. Vincenty, Bossio & Cia. <<http://hdl.handle.net/10357/4358>> [Kontsulta: 2018/07/17].
- Zamorano Aguilar, Alfonso, 2002. “Teoría y estructura de los prólogos en los tratados gramaticales españoles (1847-1999)”. In Miguel Ángel Esparza Torres, Benigno Fernández Salgado eta Hans-J. Niederehe (arg.). *SEHL 2001, Estudios de Historiografía Lingüística. Actas del III Congreso internacional de la SEHL. Vigo, 7-10 de febrero de 2001*. Hamburgo: Helmut Buske. I, 489-511.
- , 2004. “El prólogo en la historia de la gramática española de la segunda mitad del siglo XIX. Tipologías y argumentos conceptuales y formales”. In Gerda Hassler eta Gesina Volkmann (arg.). *History of Linguistics in Texts and Concepts*. Münster: Nodus Publikationen. I, 251-266.